

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUTADA-ELGEA MENDIZERRAKO URKIDETZA

Lautada-Elgea Mendizerrako Urkidetza Partzuergoko kideak banantzeko eta banantze-kuotak eta horri dagozkion baldintzak onartzeko akordioa

Batzar nagusiko legezko kide-kopuruaren gehiengo osoz eta Partzuergoko batzar nagusiak 2021eko urriaren 27an egindako bilkuran bertaratutakoen aho batez (bigarren deialdian), gai-zerrendako laugarren puntua onartu zen.

Puntu horretan, Gobernu Batzordeak onartutako, lehendakariaren proposamena jasotzen da. Proposamen horren bidez, Partzuergoko zenbait kide Urkidetza erakundetik ateratzea onartu da, eta banantze horren kuotak, ondasunen eta azpiegituren itzulketa eta horren ondoriozko gainerako baldintzak eta inguruabarrak zehazten dira.

Ateratzen diren Partzuergokideak honakoak dira:

1. Gauna Kontzejua.
2. Trokoniz Kontzejua.
3. Txintxetru Kontzejua.
4. Elburgo/Burgeluko Udala.
5. Añua Kontzejua.
6. Arbulu Kontzejua.
7. Argomaniz Kontzejua.
8. Elburgo/Burgelu Kontzejua.
9. Gazeta Kontzejua.
10. Hixona/Hijona Kontzejua.
11. Alegria-Dulantziko Udala.
12. Egileta Kontzejua.
13. Mendixur/Mendijur Kontzejua.
14. Oreitia Kontzejua.

Iragarki hau Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 45.1 artikuluan xedatutakoaren arabera argitaratzen da, behar diren ondorioetarako Partzuergoko presidentearen ustez argitaratzean interes publikoko arrazoiak daudelako.

Barrundian, 2021eko urriaren 27an

Lehendakaria

ION KOLDO SAEZ DE URABAIN GARAI